

**2016ko IRAILAREN 29an UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO OSOKO  
BILKURAREN AKTA**

**13 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2016ko irailaren 29an, iluntzeko zazpitan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko xedez.

Honako zinegotzi hauek bertaratu dira:

<b>Batzarburua</b>	Xabier Txurruka Fernandez jn.
<b>Bertaratutako zinegotziak</b>	Maite Garrastazu and. Jesus Arana Gomez jn. Nekane Iribar Iriondo and. Ixidor Larrañaga Ayerbe jn. Imanol Lasa Zeberio jn. Iban San Martin Hernandez jn. Miren Letamendia Belloso and. Jon Andoni Urdangarin Urrutia jn. Iratxe Zorrozuza Eguiazabal and. Mikel Goenaga Gubia jn. Naiara Carvajal Larrañaga and. Iñaki Eizagirre Eizagirre jn. Karmele Alberdi Linazasoro and. Aitor Korta Etxabe jn. Xabier Vazquez Izquierdo jn. Gloria Vazquez Herranz and. Pablo Garcia Astrain jn. Ana De Benito Sanz and. Oihane Delgado Pita and.
<b>Ez da etorri</b>	Ane Arruti Lopetegi and.
<b>Idazkaria</b>	Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and.
<b>Kontu-hartzailea</b>	Lioba Maiza Rekondo and.

Osoko bilkura hasi aurretik, **alkate** jaunak ekarri du gogora IMANOL URBIETA, atzo zendu zena eta 1996an Zarauzko Udalaren Kultur Merezimenduen Domina jaso zuena.

Udal taldeetako bozeramaileek agur hitzak eskaini ondoren, Imanol Urbietaren oroimenez *Txoria nintzela* abestia entzun dute Udalbatzak eta batzar-aretoan bildutako guztiek, bukaeran txalo beroak eskainiz.

Ondoren, **alkate** jaunak beste aipamen bat egin du. Udalbatzaren izenean gogoratu ditu: batetik, JOSE BENITO MUJICA ZUMETA, Xenki, 31 urte zituela, 1972ko irailaren 2an Lekeition guardia zibilaren tiroen ondorioz hildako zarauztarra; eta, bestetik, Zarauzko komandantziako guardia zibilak, ENRIQUE RÚA DÍEZ, 27 urte zituela, eta RAFAEL GIL MARTIN, 30 urterekin, ETAko komando batek tiroz hil zituenak Getarian.

Bilkurari hasiera emanda, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatu ditu Udalbatzarrak. Bilkura honela izan da:

### GAI-ZERRENDA

#### **1.- AURREKO BILKUREN AKTAK ONARTZEA**

##### **a) 2016ko uztailaren 28koa**

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

##### **b) 2016ko abuztuaren 26koa**

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

##### **b) 2016ko abuztuaren 27koa**

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

#### **2.- UDAL ORGANOEN KUDEAKETAREN KONTROLA**

##### **a) Alkatetzaren dekretuak: 2016ko uztailaren 22tik irailaren 23ra.**

Segidan, Alkatetzak 2016ko uztailaren 22tik irailaren 23raerabakitako dekretuen berri izan du Udalbatzak.

##### **b) Tokiko Gobernu Batzarra: 2016ko irailaren 12tik 19ra**

Era berean, Tokiko Gobernu Batzarrak 2016ko irailaren 12tik 19ra hartutako erabakien berri izan du Udalbatzak.

### **3.- GARAPENERAKO LANKIDETZAREN ETA HEZKUNTZAREN AHOLKU BATZORDEA SORTZEA ETA ARAUTUKO DUEN ERREGELAMENDUA ONARTZEA. HASIERAKO ONESPENA**

Zarauzko Udalak urteak daramatza Garapenerako Lankidetzan lanean, beti ere herriko elkarten sare solidarioarekin elkarlanean eta koordinatuta.

Udalak egiten duen politikan elkarte horiek modu iraunkorrean parte har dezaten baliabideak jartzeko helburuarekin, beharrezkotzat jo da GARAPENERAKO LANKIDETZAREN ETA HEZKUNTZAREN AHOLKU BATZORDEA sortu eta martxan jartzea. Herritarren parte-hartzea bermatuko duen organo aholku-emaile gisa, garapenerako lankidetzan eta hezkuntzan Udalaren jarduerak kontrastatzea, definitzea eta horien jarraipena egitea izango dira bere egitekoak.

Herritarren arloko informazio-batzordearen irizpena ikusi ondoren, Udalbatzarrak, aho batez,

**ERABAKI DU**

**Lehenengoa.-** GARAPENERAKO LANKIDETZAREN ETA HEZKUNTZAREN AHOLKU BATZORDEA sortzea, organo osagarri gisa, Udal Erregelamendu Organikoak 12.3 d) artikuluan aurreikusten duenaren arabera.

**Bigarrena.-** Hasierako onespena ematea GARAPENERAKO LANKIDETZAREN ETA HEZKUNTZAREN AHOLKU-BATZORDEAREN ERREGELAMENDUari, Herritarren arloko informazio-batzordeak ontzat emandako testuaren arabera.

**Hirugarrena.-** Espedientea jendaurrean jartzea, 30 eguneko epean, interesdunek erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten. Jendaurreko informazio-izapidea jakitera emango da udaletxeko iragarki-taulan zein web-orrian jarriko den eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean zein probintzian gehien zabaltzen diren egunkarietako batean argitaratuko den iragarkiaren bidez.

**Laugarrena.-** Erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ezean, GARAPENERAKO LANKIDETZAREN ETA HEZKUNTZAREN AHOLKU-BATZORDEAREN ERREGELAMENDUA behin betiko onartutzat emango da, berariazko erabakirik hartu behar izan gabe. Dena den, indarrean sartzeko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean testu osoa argitaratu beharko da.

### **GARAPENERAKO LANKIDETZAREN ETA HEZKUNTZAREN AHOLKU-BATZORDEAREN ERREGELAMENDUA**

#### **ZIOEN AZALPENA**

Zarauzko Udalak urteak daramatza Garapenerako Lankidetzan lanean, beti ere herriko elkarten sare solidarioarekin elkarlanean eta koordinatuta.

Nazioarteko lankidetzan eta garapenerako hezkuntzan Udalak egiten dituen jarduerak ondorengo bi printzipioetan oinarritzen dira batez ere:

1. Justizia sozialeko kontu bat da lankidetzaren, berdintasunean eta tolerantzian oinarritzen diren elkarbizitza baketsurako baloreak sustatzen ditu, eta horrek aukera ematen du Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko harremanen egitura aldatzeko, betiere pertsona guztientzat giza-garapen jasangarriaren ikuspuntutik abiatuta.

Atzerrian ez ezik, bertako herritarren artean ere sustatzen dira balio horiek, eta horrek lagundu egiten du munduan dagoen desberdintasun sozialari buruzko hausnarketa kritiko bat egiten.

Horregatik guztiagatik, garapen-bidean dauden herrialdeetan egiten diren lankidetzaprogramekin batera, garapenerako hezkuntzaprogramak ere egiten dira udalerrian bertan.

2. Zeregin hori herriko elkarten sare solidarioarekin elkarlanean eta koordinatuta egingo du Udalak. Zarautzen errotuta eta finkatuta dagoen elkartasun sare bat osatzen dute elkarte horiek, eta dagoeneko erakutsi dute oso gauza direla mobilizatzeko eta gauzak antolatzeko.

Garapenerako lankidetzan eta hezkuntzan Udalak egiten duen politikan elkarte horiek parte hartzea da Udal honen borondatea, eta parte-hartze hori iraunkorra izateko bitartekoak jarriko ditu. Eta hori guztia maiatzaren 12ko 6/2016 Legeak, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzkoak, 6 d) artikuluan xedatutakoarekin bat etorrira:

*“Euskal administrazio publikoek Euskadiko hirugarren sektore sozialerako erakundeei eta sareei bermatuko diete Administrazioaren jardun-esparru guztietan beren iritzia publikoki elkarri adierazteko eskubidea, eta erakunde eta sare horiekin elkarriketa irekia, gardena eta ohikoa izango dute politika sozialaren gainean; horretarako, elkarriketa zibileko mahaia abiaraziko dituzte, eta kontsulta organoetan edo horretarako abiarazitako prozesu espezifikoetan parte hartuko dute.”*

Eta helburu horrekin sortuko du udal batzordea.

### 1.- IZAERA ETA KOKAPENA

Zarauzko Udaleko Garapenerako Lankidetzaren eta Hezkuntzaren Aholku Batzordea herritarren parte-hartzea bermatuko duen organo aholku-emaile iraunkorra da. Garapenerako lankidetzan eta hezkuntzan Udalaren jarduerak kontrastatzea, definitzea eta horien jarraipena egitea izango dira bere egitekoak.

Batzorde horretan hartutako erabakiak aintzat hartzeko konpromisoa hartzen du Udalak, baina erabaki horiek ez dira inolaz ere lotesleak izango.

Erregelamendu honek eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenek arautuko dute Batzordea.

### 2.- FUNTZIOAK

- Udalaren eta arlo honetan lanean diharduten elkarte sozialen artean solasaldi zuzena eta iraunkorra ezartzea.
- Eztabaida-leku bat edukitzea elkarte horiek beren proposamenak, iradokizunak, eskaerak, kezak edo kezak helarazteko Udalari.
- Udalek eta elkarte sozialek herrian egiten duten sentsibilizazio-lana koordinatzea, bikoiztasunak saihestea eta baliabideak optimizatzea.
- Garapenerako lankidetzan eta hezkuntzan Udalaren jarduna nolakoa den aztertzea, eta jardun horri buruzko hausnarketa eta jarraipena egitea.
- Udalak diruz laguntzen dituen proiektuen jarraipena etengabe egitea.

### 3.- OSAKETA

Zarauzko Udaleko Garapenerako Lankidetzaren eta Hezkuntzaren Aholku Batzordeak gutxienez 9 kide izango ditu, arlo horretako herriko elkarte ezberdinak ordezkatzeko. Hala ere, batzordekide-kopuru maximorik ez da egongo. Horrela, bada, garapenerako lankidetzan lanean diharduten Zarauzko elkarte guztiek eta gai horretan esperientzia eta interesa daukaten pertsona guztiek parte hartu ahaliko dute Batzorde honetan.

Batzordeak ondorengo osaketa izango du gutxienez:

- Batzordekideak (gutxienez 9 kide + idazkaria)
- Batzordeburua: Zarauzko Udaleko Kooperazioko zinegotzi arduraduna
- Idazkaria: Zarauzko Udaleko immigrazio eta kultur aniztasuneko teknikaria
- 3 kide: Zarauzko GGKEen Koordinakundeko ordezkariak
- Kide 1: Gipuzkoako GGKEen Koordinakundeko kidea
- 2 kide: Inongo koordinakundetako izan gabe, herrian lan egiten duten bi GGKEtako ordezkariak
- 2 kide: Garapenerako lankidetzaren arloan Zarautzen ezagunak diren bi pertsona; indibidualki edo euren buruaren izenean parte hartuko dute bi pertsona horiek.
- Udal taldeetako ordezkari bana. Beren ordezkartzaren indarrez, ordezkari politikoek izaera galduko dute agintaldia bukatzerakoan.

Ahal den neurrian, errespetatu egingo da osaketa hori. Dena den, kategoria guztietarako jenderik ez balego, interesa duten beste pertsona batzuek parte hartuko dute Batzorde honetan.

Udaleko Berdintasun Plana aintzat hartuta, Batzordearen ordezkariak parekidea izango da, eta emakumeak ezingo dira batzordekideen %40 baino gutxiago izan.

#### **4.- BATZORDEAN SARTZEA**

4.1. Aurreko artikuluan aipatutako elkarte eta erakundeek Batzordean sartzeko eskatu beharko dute, batzordeburuari zuzendutako idatzi baten bidez. Eskaerarekin batera ondorengo agiriak aurkeztu beharko dituzte:

- Parte-hartzea eskatzeko inprimakia, behar bezala beteta.
- Elkarte edo erakundearen idatzia, bere ordezkariak eskatzailearen eta ordezeko pertsonaren esku uzten duela adierazten duena.

4.2. Indibidualki edo euren buruaren izenean parte hartu nahi duten pertsonak eskarmentua izan beharko dute garapenerako lankidetzaren arloan, eta ondorengo agiria aurkeztu beharko dute:

- Parte-hartzea eskatzeko inprimakia, behar bezala beteta. Bertan, garapenerako lankidetzaren alorrean duten eskarmentuaren berri emango dute eskatzaileek.

4.3. Pertsonen edo erakundeen datuak aldatzen badira, Batzordeko idazkaritzari jakinaraziko zaizkio, aldaketak gertatzen direnetik hilabeteko epean.

4.4. Batzordean parte hartu nahi dutenek edozein momentutan egin dezakete sartzeko eskaera.

4.5. Batzordeak onartu beharko ditu bertan sartzeko eskaerak, horretarako baldintzak bete egiten direla egiaztatu eta gero.

4.6. Batzordean gehienez ere hiru urtez parte hartuko dute batzordekideek. Denbora hori pasatu ondoren, Batzordean beste hiru urtez jarraitzeko eskaera egin ahalko dute.

4.7. Batzordean, erakunde edo pertsona partikularrek aholkulari gisa hitz egin ahal izango dute, baina botoa emateko eskubiderik ez dute izango.

#### **5.- BATZORDEKO PARTAIDE IZATEARI UZTEA**

5.1. Batzordekide izateari utziko zaio ondorengo arrazoiren batengatik:

- Norbere borondatez
- Elkarte edo erakundea desegitea
- Elkartearen edo antolakundearen ordezkariak galtzea
- Justifikaziorik gabe bileretara ez joatea (hiru aldiz jarraian, edo guztira bost aldiz)
- Erregelamendu hau behin eta berriz ez betetzea
- Batzordekide izateko arauzko gehienezko epea bukatzea

5.2. Batzordeak hartuko du kide izateari uzteko erabakia, dagokion elkarte edo pertsonari entzun eta gero.

#### **6.- BILEREN ALDIZKAKOTASUNA**

Batzordea gutxienez hiru hilean behin elkartuko da, eta baita batzordeburuak bilerarako deia egiten duen aldi bakoitzean ere.

Era berean, batzordekideen gehiengo osoak hala eskatzen duenean, Batzordeko bilera deitu ahal izango da.

Deialdiak idatziz egingo ditu Batzordeko idazkaritzak, gutxienez bilera egin baino lau egun lehenago. Deialdian, bileraren data, ordua, tokia eta gai-zerrenda agertuko dira.

#### **7.- FUNTZIONAMENDUA**

- Batzordea eratu ahal izateko batzordekideen gehiengo osoa beharko da.
- Ahal dela, erabakiak denon adostasunarekin hartuko dira, eta hori ezinezkoa izanez gero, bertaratutako gehiengo soilez. Berdinketa gertatzen bada, batzordeburuak bozkaturako aukeraren alde ebatziko da.
- Batzordeko idazkariak bileren aktak idatziko ditu, Batzordearen hurrengo bileran onartzeko. Akta onartu ondoren, idazkariak izenpetu egingo du Buruzagitzaren oniritziarekin. Udaleko Gizarte Zerbitzuetan gordeko dira aktak, eta batzordekideen esku egongo dira.
- Lan-taldeak sortu ahal izango dira, baldin eta gehiengoaren iritzirako gaiak aztertzeko beharrezkoak badira.
- Udalak beharrezko ikusten duen informazioa eta dokumentazio guztia aurretiaz eskainiko die batzordekideei.

#### **4.- ZARAUZKO UDALAREN KONTRATAZIO MAHAI IRAUNKORRA SORTZEA ETA OSATZEA**

Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testuategina onartzen duenak (320. artikuluan), eta maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuak, Sektore Publikoko Kontratuen Legea (30/2007, urriaren 30ekoa) zati batean garatzen duenak (21. eta hurrengo artikuluetan) kontratazio-mahaien funtzionamendua eta osaera arautzen dituzte.

Azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak (II. Tituluaren II. Kapituluaren II. Kide anitzeko organoen araubidea ezartzen du.

Hori guztia kontuan hartuta, eta Antolakuntzako informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, aho batez,

#### **ERABAKI DU**

**Lehena.**- ZARAUZKO UDALAREN KONTRATAZIO MAHAI IRAUNKORRA eratzea, arau hauek ematen dizkieten funtzioekin: Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testuategina onartzen duenak (320. artikuluan), eta maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuak, Sektore Publikoko Kontratuen Legea (30/2007, urriaren 30ekoa) zati batean garatzen duenak (21. eta hurrengo artikuluetan).

Kontratazio Mahai Iraunkorra honela definitzen da: organo teknikoa da, kide anitzekoa eta espezializatua, Udalaren kontratazio-organoei laguntza ematen diena lizitazio irekien edo mugatuen prozeduretan, eta esleipen-proposamen ez lotesleak ematen dituena.

**Bigarrena.**- Kontratazio Mahai Iraunkorra modu honetan osatzea:

##### **Mahaiburua:**

- Zarauzko Udaleko alkate udalburua.  
Ordezkoa, mahaiburua ez dagoenean: Jarduneko alkatea.

##### **Mahaikideak:**

- 1. kidea: Gaiaren ardura duen informazio-batzordeko burua.  
Ordezkoa: adierazitako informazio-batzordeko ordezkari burua.
- 2. kidea: Udaleko idazkari nagusia.  
Ordezkoak:
  - Zerbitzu juridikoetako AOT (Kontratazioa eta Ondarea)
  - Zerbitzu juridikoetako AOT (Ondare erantzukizuna eta zigortzeko ahalmena).

- 3. kidea: Zerbitzu juridikoetako AOT (Kontratazioa eta Ondarea)  
Ordezkoa: Zerbitzu juridikoetako AOT (Ondare erantzukizuna eta zigortzeko ahalmena).
- 4. kidea: Udal kontu-hartzailea.  
Ordezkoak:
  - Kontabilitate eta Aurrekontuetako teknikaria.
  - Errentetako teknikaria.
- 5. Kidea: Dagokion arloko zinegotzi arduraduna.
- 6. Kidea: Gaiaren ardura duen departamentuko udal teknikaria.

**Idazkaria:**

- Zerbitzu juridikoetako administraria (Kontratazioa eta Ondarea)  
Ordezkoa: Zerbitzu juridikoetako administraria (Ondare erantzukizuna eta zigortzeko ahalmena).

**Hirugarrena.- Funtzionamendurako arau hauek onartzea:**

1. Kontratazio Mahai Iraunkorrek esleipen-proposamenen bidez beteko du bere jarduera. Proposamen horiek ez dira lotesleak izango kontratazio-organoarentzat.

Hala ere, baldin kontratazio-organoak ez badu kontratua Kontratazio Mahaiak egindako proposamenaren arabera esleitzen, bere erabakia arrazoitu egin beharko du.

2. Kontratazio Mahai Iraunkorrek ez du derrigorrezko aholkularitzarik emango prozedura negoziatuetan eta kopurua dela-eta kontratu txikiaren figura erabiltzen den prozeduretan.
3. Kontratazio Mahai Iraunkorrek hilero ohiko bilera bat egingo du, hilabete bakoitzeko lehen astearteko eguerdiko 12:00etan. Ez da beharrezkoa izango deialdia eta gai-zerrenda egitea. Deialdia eta landu beharreko gaien dokumentazioa mahaikideen eskura egongo dira Kontratazio Unitatean, bilera-egunaren aurreko ostiraletik.

Finkatutako eguna jaiegun izanez gero, haren aurreko edo hurrengo egun baliodunean egingo da, ordu berean."

4. Mahaiburuak aparteko bilera bat deitu dezake, lizitazio prozedura batek hala eskatzen duenean. Kasu horretan, deialdi formala egin beharko da.
5. Mahaia balioz eratzeko, beharrezkoa izango da bere kideen gehiengo osoa presente egotea, eta beti honako hauek: mahaiburua, idazkaria, eta organoaren aholkularitza juridikoaren eta aurrekontu- eta ekonomia-kontrolaren funtzioak esleituta dituzten bi kideak.
6. Kontratazio Mahaiko kide guztiek izango dute hitza eta botoa, idazkariak izan ezik, zeinak hitza bakarrik izango duen.

7. Landu beharreko gaiak direla-eta beharrezkoa bada, aholkulari espezializatuak joan ahalko dira bileretara, Mahaiburuak hala eskatuz gero. Aholkulari horiek hitza izango dute, baina ez botoa.
8. Udal talde bakoitzeko ordezkari bat ere joan ahalko da bileretara. Euren iritzia emateko aukera izango dute, baina ez dute boto-eskubiderik.
9. Kontratazio Mahaiaren proposamenak bertaratutako kideek emandako botoen gehiengo soilaz onartuko dira. Botoak berdinduta badaude, Mahaiburuak emandako botoaren aukerak erabakiko du.
10. Kontratazio Mahaiak egiten duen bilera bakoitzaren akta egingo du idazkariak. Hor adieraziko dira: eguna, hasiera eta bukaerako ordua, bilera-lekua, bertaratutakoak, eguneko aztergaiak, landutako gaiak, bozketen emaitzak eta onartutako akordio-proposamenak.

#### **5.- HIRI ANTOLAMENDUAREN PLAN OROKORRAREN ALDAKETA, ORDENANTZA OROKORREKO HAINBAT ARTIKULURI DAGOKIENA. BEHIN BETIKO ONESPENA**

2016ko ekainaren 30ean egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak erabaki zuen hasierako onespena ematea hiri antolamenduaren plan orokorraren aldatetari. Aldaketak ordenantza orokorreko hainbat artikuluri dagokie, eta Udalak berak sustatu zuen espedientea.

Espedientea jendaurrean egon zen epean alegazioa bat aurkeztu zuten. Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuak informatu zuen.

Udal plangintzako aholku batzordeari espedientearen berri eman zitzaion.

Espedientea Lurraldeko informazio-batzordean eztabaidatu zen. Alegazioa onartzea proposatu zuen.

Hirigintza eta Ingurumen Departamentuak dokumentuaren testu bategina idatzi zuen. Bertan, alegazioa onartzeko proposamenak eragindako aldaketa sartu da, eta zuzendu egin dira udal teknikariek hasierako onespeneko dokumentuan antzemandako akatsak eta kontraesanak.

Espedienteaz zertu eta eztabaidatu ondoren, bilkuran dauden 20 zinegotzien aldeko botoarekin eta, beraz, legezko gehiengo osoaren "quorum"arekin, Udalbatzarrak

ERABAKI DU

**Lehenengoa.-** Rosa Lertxundi andrearen izenean, Naiara Sudupe andreak aurkeztu zuen alegazio onartzea. Horren ondorioz, aldatu egin da 7.4.08 artikulua 2B ataleko testua, eta zenbatu ahal izango dira estalki azpian kokatutako etxebizitzetara



zuzendutako espazioak, etxebizitzaren banaketa-espedienteetan, emaitzazko etxebizitzaren azalaren batezbestekoak kalkulatzeko.

**Bigarrena.-** Behin betiko onespina ematea hiri antolamenduaren plan orokorraren aldaketari. Ordenantza orokorreko hainbat artikuluri dagokie aldaketak.

Onartu den dokumentua 2016ko irailekoa da, eta Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuak idatzi du.

**Hirugarrena.-** Onartutako dokumentua Foru Aldundiaren hirigintzako plangintzaren erregistro administratibora bidaltzea. Horren ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira behin betiko akordioaren testu osoa eta ordenantzak. Halaber, behin betiko onespenerako akordioa lurralde historikoan gehien zabaltzen den egunkarian argitaratuko da.

## **6.- 2-2 AREAKO –OR ALDAPETA– HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIAREN ALDAKETA. BEHIN BETIKO ONESPENA**

2016ko uztailaren 18an egindako bilkuran, Zarauzko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen hasierako onespina ematea 2-2 arearen -OR Aldapeta- eta Pilar Enea etxeko partzelako (2-3 area) hiri antolamenduko plan berezia aldatzeko proiektuari.

WISESA sozietate publikoak abiarazi zuen espedientea eta bakarrik 2-2 areari eragiten dio: zonifikazioa, eraikinaren tipologia, eta erabilera bateragarriak

Jendaurreko epean ez zen alegaziorik aurkeztu.

Eremuak muga egiten du GI-2633 errepidearekin. Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuaren aldeko txostena jaso da.

Hasierako onspenerako baldintzak bete egin dira.

Espedientea Lurraldeko informazio-batzordean eztabaidatu zen.

WISESA sozietate publikoak plan berezia aldatzeko dokumentuaren testu bategina aurkeztu zuen; bertan lerroakadurak, sestrak eta eraikuntza profilak jasotzen dituen plano berria sartu dute.

Espedientea aztertu eta eztabaidatu ondoren, 14 zinegotziren aldeko botoarekin eta, beraz, legezko gehiengo osoaren "quorum"arekin, Udalbatzarrak

ERABAKI DU

**Lehenengoa.-** Behin betiko onespina ematea 2-2 arearen -OR Aldapeta- eta Pilar Enea etxeko partzelako (2-3 area) hiri antolamenduko plan berezia aldatzeko

proiektuari. VISESA sozietate publikoak abiarazi zuen espedientea.

Onartutako dokumentua 2016ko irailekoa da, eta Nerea Morgado arkitektoak sinatu du.

Eraikuntza lizentzia lortu aurretik, justifikatu egin beharko da betetzen direla zaratari buruzko udal ordenantza eta Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko araudia.

**Bigarrena.-** Onartutako dokumentua Foru Aldundiaren hirigintzako plangintzaren erregistro administratibora bidaltzea.

Horren ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira behin betiko akordioaren testu osoa eta hirigintzako ordenantzak. Halaber, behin betiko onespeneko akordioa lurralde historikoan gehien zabaltzen den egunkarian argitaratuko da.

## **7.- 2017. URTERAKO ORDENANTZA FISKALAK. HASIERAKO ONESPENA**

Antolakuntzako informazio-batzordeak egindako proposamena aztertu ondoren, Udalbatzarrak, botoen gehiengoaz,

### **ERABAKI DU**

**Lehena.-** Hasierako onespena ematea ondoko Ordenantza Fiskal hauen eranskinen aldaketari, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean sartzeko:

- 1. ordenantza fiskala: ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duena.
- 3. ordenantza fiskala: hirilurren balioaren gehikuntzen gaineko zerga arautzen duena.
- 4. ordenantza fiskala: trakzio mekanikozko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duena.
- 5. ordenantza fiskala: eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duena
- 6. ordenantza fiskala: udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituena.
- 7. ordenantza fiskala: zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituena.
- 12. ordenantza fiskala: zaraizko udalerriko industrialde eta enpresaguneetan hondakinen atez ateko bilketa zerbitzua emateagatik ordaindu beharreko tasa arautzen duena.

**Bigarrena.-** Espedientea jendaurrean jartzea, 30 egun balioduneko epean, interesdunek erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten, uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituenak, 16. artikuluan ezartzen duenaren arabera. Jendaurreko informazio-izapidea jakitera emango da udaletxeko iragarki-taulan zein web-orrian jarriko den eta Gipuzkoako

Aldizkari Ofizialean zein probintzian gehien zabaltzen diren egunkarietako batean argitaratuko den iragarkiaren bidez.

**Hirugarrena.-** Erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ezean, Ordenantza Fiskalen aldaketa behin betiko onartutzat joko da, berariazko erabakirik hartu behar izan gabe. Dena den, indarrean sartzeko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean testu osoa argitaratu beharko da.

## **2017. URTERAKO ORDENANTZA FISKALAK**

### ALDATUTAKO TESTUAK

(ondorio-data: 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera)

### **1. ORDENANTZA FISKALA: ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA**

#### **ERANSKINA**

#### **I.- KARGA TASA**

Karga-tasa hau aplikatuko zaio Ondasun Higiezin Hiritarren Zergari:

- Karga-tasa orokorra: % 0,1615

Lurzoru industrialetan edo hirugarren sektorekotan kokatuta dauden ondasun higieziinei aplikatuko zaien tasa, balorazio-txostenen arabera: % 0,5492 (salbuespena: erabilera nagusia industrialia edo hirugarren sektorekoa ez duten eraikinetan kokatutako finkak).

- Karga-tasa hau aplikatuko zaio Ondasun Higiezin Landatarren Zergari: % 0,6259

#### **II.- HOBARIAK**

Eskabidea egin eta hurrengo zergalditik aurrera izango dituzte ondorioak ematen diren hobari guztiek, eta ez dute atzeraeraginezko ondorioak izango.

1.- Zerga-kuota osoaren % 50eko hobaria izango dute ondasun higiezin hauek: Eusko Jaurlaritzaren "Etxebizitza Hutsaren Programan" (316/2002 Dekretua, abenduaren 30ekoa) edo foru edo udal programa antzekoetan sartuta daudenak.

Hobari hori jasotzeko eskatu egin behar da, eta beharrezkoa izango da ondasunaren titularraren eta etxebizitza kudeatzen duen erakundearen arteko kontratua aurkeztea.

2.- Familia ugarietzako hobariak:

Familia-errenta estandarizatuaren arabera kalkulatu dira hobarien portzentajeak. Martxoaren 17ko 31/2015 Dekretuak arautzen du familia-errenta estandarizatua, honela:

Familia-errenta estandarizatua

	Gehienez 10.000,00 €	10.000,01 €-tik 20.000,00 €-ra	Gutxienez 20.000,00 €
Hobaria	% 90	% 40	% 0

Familia-errenta estandarizatua honela lortzen da: errenta familia zati familia-unitateari dagokion baliokidetasun-koefizientea.

Familia-unitateari dagokion baliokidetasun-koefizientea honela lortzen da: familia-unitatea osatzen duen pertsona bakoitzari ondorengo koefizienteetatik dagokiona aplikatu ondoren lortzen den batura:

- a. Eskatzailea bi gurasoko familia-unitateko kide izatea: 1,00.
- b. Ezkontidea edo izatezko bikotea: 0,5.
- c. Familia-unitateko seme edo alaba bakoitza: 0,3.

Eskatzaileak ez badauka ezkontiderik edo izatezko bikoterik edo emakumeen aurkako indarkeriaren biktima bada, 0,3 batuko zaio adierazitako koefizienteari.

Familia-unitatea osatzen duten pertsonetako bati % 33ko edo gorakoko desgaitasuna onartu badio horretarako eskumena duen agintaritzak edo mendekotasun egoera aitortuta badauka (abenduaren 14ko 39/2006 Legeak, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoak eta horren garapeneko arauak xedatutakoari jarraiki), 0,3 batuko zaio dagokion koefizienteari.

Familia-errenta honela zehaztuko da: zerga-hobariaren aurreko urtean, familia-unitateko kide guztien PFEZen likidazio-oinarriak batuta (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga).

Ezkontza-deuseztatze, banantze edo dibortzio kasuetan, hitzarmen arautzaile edo epai judizialaren arabera seme-alaben zaintza daukan aita edo ama eskatzailearen zerga-oinarri orokorraren eta aurrezkiaren zerga-oinarriaren batura hartuko da kontuan, eta horri egungo ezkontide edo izatezko bikotearen diru-sarrerak gehituko zaizkio, halakorik edukiko balu.

Familia-unitatea honako hauek osatuko dute:

- a) Eskatzailea,
- b) bere ezkontidea (ezkontza-deuseztatze, banantze edo dibortziorik ez badago) edo izatezko bikote modura eskatzailearekin batera bizi den pertsona (behar bezala frogatuta baldin badago), eta
- c) bere zaintzapean etxebizitza berean bizi diren seme-alabak.

Zerga-onuraren mugak:

- Balio katastrala 180.000 eurotik gorakoa bada, gehienez ere balio horri dagokion hobaria bakarrik aplikatuko da.
- Familia ugaria osatzen duten pertsonen hobari fiskalaren aurreko urtean egin duten PFEZEN likidazioa hartuko da kontuan diru-sarrera gordinen muga ezartzeko (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga).
- Familia ugariaren hobaria bateraezina izango da OHZri jarritako edo jarriko zaizkion beste zerga-hobari batzuekin (Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga).
- Familia-unitatearen ohiko etxebizitza eta higiezin berean kokatutako ganbara edo trastelekua bakarrik hartuko da kontuan hobaria aplikatzean.
- Higiezin bat ohiko etxebizitza izateko nahitaezkoa izango da higiezin horretan erroldatuta egotea zerga-hobaria jasotzeko eskubidea duen familia-unitateko kide guztiak.
- Hobariak ez du atzeraeraginezko ondorioz, hau da, ez da aplikatuko epe barruan aurkeztutako hobari-eskaera egin aurreko ekitaldietan.

Hobaria jasotzeko betebeharrak eta tramite formalak:

- Subjektu pasiboa familia ugariaren titularra izango da zergaren sortzapen egunean (urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean), eta honako hauek aurkeztuko ditu:
- Eskaera, hobariaren xede den higiezinaren zein den identifikatuta.
- Familia ugariaren titulua edo fotokopia konpultsatua.
- Zerga-hobariaren aurreko urteko PFEZen fotokopia konpultsatua, familia ugariaren kide guztien, edo aitortpena egiteko obligaziorik ez duela frogatzen duen agiria.
- Eskaera aurkezteko epea 7 hilabetekoa izango da (urte bakoitzeko ekainetik abendura).

### III.- ERREKARGUAK

Ondasun higiezinak etxebizitza erabilera dutenean, eta subjektu pasiboaren edo hirugarrenen ohiko egoitza ez direnean -hirugarrenen kasuan errentamenduz edo lagapen bidez-, Zarauzko Udalak % 100eko errenergua eskatuko du zergaren kuota likidoaren gainean. Errekargua zerga honen subjektu pasiboei exijituko zaie; zergaren une berean sortuko da, eta urtero likidatuko da, kuotarekin batera.

Errekargu hau aplikatzearen ondorioetarako, Katastroaren arabera etxebizitza gisa erabiltzekoak diren lokalak ere etxebizitza erabilera duten ondasun higiezinat hartuko dira. Etxebizitzaren eranskinak barruan sartuko dira, erregistroko finka bakarra osatzen dutenean. Ondorio horietarako ere, presuntzio egingo da etxebizitza erabilerako ondasun higiezin bat ohiko egoitza dela baldin eta, zergaren sortzapen egunean, hura kokaturik dagoen udalerriko erroldan egiaztatua badago bertan bizi den/direnen ohiko bizilekua dela.

Errekarguaren SALBUESPENAK:

- 1.- Zergan hobariren bat dutenak.
- 2.- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Udal matrikulan alta emanda dauden jarduerekin lotutakoak.
- 3.- Zergaren sortzapenaren aurreko urtean 9 hilabetetik gora alokatuta egon diren etxebizitzak (soilik alokatutakoak, erabilera-lagapenak ez dira sartzen). Hobaria aplikatzeko ondorengo agiriak aurkeztuko dira:
  - a) Hobaria aplikatzeko eskaera.
  - b) Alokairu-kontratua, behar bezala datatu eta sinatutakoa. Kontratu horretan adierazi beharko du higiezinaren helburua edo erabilera etxebizitzarena dela.
  - c) Zergaren sortzapenaren aurreko urteko errenten kobrantza-agiriak (banketxeak).
- Alokairu-kontratu horien berri emango zaio Gipuzkoako Foru Aldundiari.
- 4.- Hirugarren Adinekoen Egoitza batean errolatuta dauden pertsonen jabetzako etxebizitzak. Hobari hau soilik aplikatuko zaio egoitzan sartu aurretik egoiliarren ohiko etxebizitza zenari.
- 5.- Herentzia baten zati diren etxebizitzak, titularra hiltzen denetik 2 urteko epean.
- 6.- Zergaren sortzapenaren aurreko urteko azaroan edo abenduan erositako etxebizitzak, urtarrilaren 1ean inor bertan errolatuta ez dutenak, baina errolatzeko izapideak zergaren sortzapen-urteko lehen hiruhilekoan eginda dituztenak.
- 7.- Legezko aurri-egoera formalki aitortua duten eraikinetan dauden etxebizitzak.
- 8.- Hiri katastroaren erregistroan bi finka independente osatzen dituzten etxebizitzak, baina etxebizitza bakar modura erabiltzen direnak. Zirkunstantzia horien balorazioko txostena udal zerbitzu tekniko eskudunek egingo dute.
- 9.- Lurzoru urbanizaezinean eta lurzoru urbanizagarrian kokatutako etxebizitzak.
- 10.- Urbanistikoki antolamenduz kanpo modura kalifikatutako eraikinetan dauden etxebizitzak.
- 11.- Ohiko etxebizitza ez diren etxebizitzak, baldin eta urteko gutxienez 300 kWh-ko energia-konsumoa frogatzen badute.
- Zergaren sortzapenaren aurreko urtean izandako elektrizitate edo gas kontsumoen fakturak aurkeztuta frogatuko da zirkunstantzia hori.
- 12.- Zaintza pertsonalak behar dituzten mendeko pertsonen jabetzako etxebizitzak, baldin mendeko pertsona hori bera zaintzeaz arduratzen den familiarraren etxean bizi eta errolatuta badago. Zaintza pertsonalen beharra mendekotasun-balorazio bidez frogatuko da. Salbuespen hau aplikatzeko beharrezkoa izango da utzi den etxebizitza hori mendeko pertsonaren ohiko etxebizitza izatea, familiarraren etxebizitzara joan aurretik.

### **3. ORDENANTZA FISKALA: HIRILURREN BALIOAREN GEHIKUNTZEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA**

#### **ERANSKINA**

##### **I. PORTZENTAIA LAUKIA**

ALDIA	URTEKO PORTZENTAIEA
5 urte arteko aldia	% 3,0
10 urte artekoa	% 2,8
15 urte artekoa	% 2,7
20 urte artekoa	% 2,7

##### **II.-KARGA TASA**

% 10,00

### III. HOBARIAK:

1. Mortis causa dohain egiten diren lur eskualdatze edo, jabaria mugatuz, ondasunen gaineko eskubide errealak eratzeko edo eskualdatzeak egitean hobari hau izango da:

Kuota osoaren % 50ekoa senar edo emazteentzat, izatezko bikoteak arautzeko maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikoteetako kideentzat eta lehen mailako oinordekoentzat, baldin eta eskualdatutako ondasuna edo eskubidea ohiko bizilekua bada, bere eranskin eta guzti, oinordeko horietako batentzat.

2. Hobari hau eskatu beharrekoa da; beraz, izan nahi badu, eskatu egin behar du herritarrak.

### 4. ORDENANTZA FISKALA:

#### TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA

#### ERANSKINA

##### I- GEHIKUNTZA KOEFIZIENTEA

Ezarritako kuota minimoak handitzen dira, turismoei 2,2924 eta gainerako ibilgailuei 2,1496 koefiziente orokorrak aplikatuta, baina honako salbuespen hauekin:

##### Turismoak:

12tik 13,99 zaldi fiskalera bitartekoak. Gehikuntza koefizientea:	2,3904
14tik 15,99 zaldi fiskalera bitartekoak. Gehikuntza koefizientea:	2,4305
16tik 19,99 zaldi fiskalera bitartekoak Gehikuntza koefizientea:	2,5756
20 zaldi fiskaletik gorakoak Gehikuntza koefizientea:	2,5756

##### Gainerako ibilgailuak:

Ziklomotorrak. Gehikuntza koefizientea:	2,3251
125 cc-tik beherako motozikletak. Gehikuntza koefizientea:	2,3251
125 cc eta 250 cc arteko motozikletak. Gehikuntza koefizientea:	2,3251
250 cc eta 500 cc arteko motozikletak Gehikuntza koefizientea:	2,5756
500 cc eta 1.000 cc arteko motozikletak Gehikuntza koefizientea:	2,6926
1.000 cc-tik gorako motozikletak. Gehikuntza koefizientea:	2,6926

14/1989 Foru Arauan ezarritako gutxieneko kuotetan eta goian adierazitako gehikuntza koefizienteetan oinarrituta finkatuko dira 2017tik aurrera ordaindu beharreko tarifak:

##### **Ibilgailuaren potentzia eta mota**

##### **Kuota**

##### 1. Turismoak

(€)

9 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	42,16
9tik 11,99 zaldi fiskalera bitartekoak	84,31
12tik 13,99 zaldi fiskalera bitartekoak	146,53
14tik 15,99 zaldi fiskalera bitartekoak	208,59
16tik 19,99 zaldi fiskalera bitartekoak	284,19
20 zaldi fiskaletik gorakoak	347,35

##### 2. Autobusak

21 plaza baino gutxiagokoak	180,14
21etik 50 plazara bitartekoak	255,03
50 plaza baino gehiagokoak	318,79

##### 3. Kamioiak

Karga erabilgarriko 1.000 kg baino gutxiagokoak	90,89
Karga erabilgarriko 1.000tik 2.999 kg bitartekoak	180,14
Karga erabilgarriko 2.999tik 9.999 kg bitartekoak	255,03
Karga erabilgarriko 9.999 kg baino gehiagokoak	318,79

#### 4. Traktoreak

16 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	37,98
16tik 25 zaldi fiskalera bitartekoak	59,69
25 zaldi fiskal baino gehiagokoak	180,14

#### 5. Atoi eta erdi atoiak

Karga erabilgarriko 750etik 1.000 kg bitartekoak	37,98
Karga erabilgarriko 1.000etik 2.999 kg bitartekoak	59,69
Karga erabilgarriko 2.999 kg-tik gorakoak	180,14

#### 6. Bestelako ibilgailuak

Ziklomotoreak	10,49
125 cc-rainoko motozikletak	10,49
125tik 250 cc-rainoko motozikletak	17,95
250etik 500 cc-rainoko motozikletak	39,79
500etik 1.000 cc-rainoko motozikletak	83,20
1.000 cc-tik gorako motozikletak	166,38

## II.- APLIKAZIO ARAUAK

Ibilgailuen Erregelamendu Orokorrean, xedapen osagarrietan eta beste arau hauetan datozen kontzeptuak eta arauak hartuko dira kontuan, tarifak erabaki eta kobratzeko orduan:

- Automobilek bezalaxe ordainduko dute furguiek, furgonetek, automobil-furgoneta erabiltzeko modukoek nahiz turismoen eratorriek (bakoitzak duen potentzia fiskalaren arabera), baldin eta 1.000 kg baino gutxiago eramateko baimena badute; hortik gorakoek, kamioek bezala ordainduko dute.
- Hiru gurgpileko nahiz lau ibilgailuak motoztat hartuko dira, eta bakoitzak duen zilindradaren arabera ordainduko dute. Lau gurgpileko arinek, dena den, moto txikiek bezala ordainduko dute.
- Ibilgailu artikulatuetan, arrasta-potentzia daramanak eta arrastatuak diren atoiak eta erdi-atoiak bakoitzak bere aldetik eta aldi berean ordainduko dute zerga.
- Autopropultsatutako makinek, bide publikotik trakzio mekanikodun beste ibilgailu batek garraiatu edo arrastatu gabe ibili ahal izanez gero, traktoreen tarifa ordainduko dute.
- Automobilak eta autokarabanak ere berdin hartuko dira, eta daukaten potentzia fiskalaren arabera ordainduko dute.

## III. HOBARIAK

1. Zerga-kuotan % 75eko hoberia izango dute Trafikoko Zuzendaritza Orokorrean erregistroan honela sailkatuta dauden ibilgailuek: bateriadun ibilgailu elektrikoak (BEV); autonomia hedatuko ibilgailu elektrikoak (REEV); ibilgailu elektriko hibrido entxufagarriak (PHEV), gutxienez 40 kilometroko autonomia dutenak; edo erregai-piladun ibilgailuak.

Hobari hori jasotzeko eskatu egin behar da. Onartu ondoren, hurrengo bi ekitaldietan izango du eragina.

2. Zerga-kuotan % 40ko hoberia izango dute Trafikoko Zuzendaritza Orokorrean erregistroan honela sailkatuta dauden ibilgailuek: ibilgailu hibrido entxufagarriak, <40 kilometroko autonomia dutenak; ibilgailu hibrido ez entxufagarriak (HEV), gas naturalarekin (GNC eta GNL) edo petrolio-gas likidotuarekin (GLP) bultzatutako ibilgailuak.

Hobari hori jasotzeko eskatu egin behar da. Onartu ondoren, hurrengo bi ekitaldietan izango du eragina.

3. %100eko hoberia izango dute ibilgailu historikoek.

Hobari hori eskatu egin beharko da, eta kasu horretan beharrezkoa izango da ibilgailuaren izaera historikoa.

4. % 50eko hoberia izango dute 14 zaldi-potentziatik beherako turismoek, baldin bost plaza edo gehiago badituzte eta indarrean dagoen legediaren arabera familia ugariako kideren baten jabetzakoa bada.

Hobari hori jasotzeko eskatu egin behar da. Urtez urte eskatu behar da, eta familia ugariaren titulua edo fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko da.

### Aplikazio araua

Hobarien gozamerako beharrezkoa izango da aurrez Udalak hobari horiek aitortzea, eta eskaeraren ondorengo zergaldian izango dute eragina.

### **IV. SALBUESPENAK**

1.- Ibilgailuen zergatik salbuetsita daude 14/1989 Foru Arauko 2.1 artikuluan a)tik g)ra bitarteko paragrafoetan adierazitako ibilgailuak.

2.- 2.1 artikuluko e) eta g) letretan aipatzen diren salbuespenak aplikatu ahal izateko, interesatuek eskatu egin beharko dituzte, eta ibilgailuen titularrek Udal honetan erroldatuta egon beharko dute. Udal Administrazioak salbuespena onartu ondoren, bera eman dela egiaztatzen duen agiria egingo du.

3.- Aurreko atalean aurreikusitako ondorioetarako, interesatuek eskaerarekin batera ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko dute:

3.1. Ezgaitasuna duten pertsonen izenean matrikulatutako ibilgailuak, pertsona horiek soilik erabiltzekoak direnean:

a) Desgaitasuna duten pertsonen gidatutako ibilgailuak:

- Desgaitasuna egiaztatzeko ziurtagiri eguneratua eta, kasuan kasu, mugikortasun urriko egoera egiaztatzekoa; biak ere organo eskudunak eginak.
- Desgaitasuna duten pertsonen izenean dagoen zirkulazio-baimenaren fotokopia.
- Ibilgailuaren aseguru-polizaren fotokopia. Polizan ohiko gidaria adieraziko da, eta bat etorriko da desgaitasuna duen pertsonarekin. Hau da, desgaitasuna duen titularrak egiaztatu beharko du bera dela ohiko gidaria, indarreko aseguru polizaren bidez.

b) Desgaitasuna duten pertsonak garraiatzeko ibilgailuak:

- Desgaitasuna egiaztatzeko ziurtagiri eguneratua eta, kasuan kasu, mugikortasun urriko egoera egiaztatzekoa; biak ere organo eskudunak eginak.
- Desgaitasuna duten pertsonen izenean dagoen zirkulazio baimenaren fotokopia.
- Ibilgailuaren aseguru polizaren fotokopia, ohiko gidaria adierazten duena.
- Ibilgailua salbuespena aitortu zaion onuraduna garraiatzeko soilik erabiliko dela adierazteko zinpeko aitortpena.

3.2 Traktoreak, atoiak, erdi-atoiak eta makineria, Nekazaritza Ikuskaritzaren Kartila dutenak:

3. Zirkulazio-baimenaren fotokopia.
4. Nekazaritzako makinaren inskripzio kartilaren fotokopia, edo Gipuzkoako Foru Aldundiaren Nekazaritza eta Ingurumen Departamentuan, Nekazaritzako Makinen Erregistro Ofizialean, alta emanda dagoela egiaztatzeko agiria, nahitaez ibilgailuaren titularraren izenean eginda dagoena.

4.- Hortaz, salbuespenen gozamerako beharrezkoa izango da aurrez Udalak hobari horiek aitortzea, eta eskaera egin den zergaldian izango dute eragina.

### **5. ORDENANTZA FISKALA: ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA**

#### ERANSKINA

#### **I.- KARGA TASA**

- Orokorra: % 5koa.
- % 1: Irakaskuntza arautuko eskolek beren zerbitzuetarako egiten dituzten obrak.
- % 0,5: Sute, uholde edo beste edozein motatako hondamendik sortutako kalteen ondorioz eraikin nahiz instalazioetan egin beharreko berreraikuntzazko obrak:



- % 2,5: Nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerekin zerikusia duten eraikuntza, instalazio eta obrak, baita negutegiek ere.
- % 2,5: Estalkiak berritu eta konpontzeko, baldin etxebizitza-eraikinetako estalkiak berritu eta konpontzeko obrak badira.
- % 2,5: Fatxadak berreskuratu, egokitu eta konpontzeko obrak, baina ez egiturazko elementuen konponketa lanak egiteko.
- % 3,0: Behin-behineko erabileretarako eraikuntza, obra eta instalazioei, baldin baimenak prekarioan ematen badira eta legezko baldintza honen mende badaude: Udalak eskatuz gero, behin-behineko erabilera edo erabilerak eten egingo dira eta obrak eraitsi eta instalazioak desmuntatu egingo dira, inolako kalte-ordainik gabe.
- % 3,0: Erabilera publikoko gunen pribatuetan egindako obrak.

## II.- AUTOLIKIDAZIOA

Zerga autolikidazio bidez eskatuko da.

## III.- SALBUESPENAK

Ondorengo salbuespenak aplikatuko dira:

1. Zerga ordaintzetik salbuetsita dago edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea, horren jabeak Gipuzkoako Foru Aldundia, Euskal Autonomia Erkidegoa, Estatua edo udal entitateak direnean, baldin eta, zergari lotuta egonik, zuzenean errepide, trenbide, portu, aireportu, obra hidrauliko eta populazioen eta ur zikinen saneamendura zuzenduta badago, nahiz eta horien kudeaketa, dela inbertsio lanetan dela artapen lanetan, organismo autonomoek egin.
2. Egoitza Santua, Apezpiku-hiria, Elizbarrutiak, Parrokiak eta lurraldeko beste barruti batzuk, Ordena eta Kongregazio Erlijiosoak eta Bizitza Kontsakturako Institutuak eta bere probintziak eta bere etxeak guztiz eta era iraunkorrean salbuetsita daude Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga ordaintzetik, baldin eraikin horiek Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga ordaintzetik salbuetsita badaude.

## IV.- HOBARIAK

- 1) Maila goreneko xedapenek behartzen dituztenak.
- 2) % 95 arteko hobari orokorra: eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena Udalbatzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, udalbatzarreko kideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.

Interes arkitektoniko, arkeologiko eta etnografikoa duten eraikinak. %95eko hobaria eraikinaren interesaren arabera. Zarauzko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorreko ondare historiko-arkitektonikoko katalogoan banakatuta dauden higiezinak eta elementuak erreferentzia moduan hartuta, eta horien sailkapenarekin bat etorritik, eraikinak honako kategorietan banatzen dira:

- % 95: babes bereziko eraikinak
  - % 40: babes ertaineko eraikinak
  - % 20: oinarritzko babesaren duten eraikinak, ingurumen-babeserako eraikinak eta toki-intereseko ondasun eraikinak
  - %95eko hobaria etxebizitza sozial eta alokairuko babes ofizialeko etxebizitzentzat.
- 3) % 80ko hobaria, eraikuntza, instalazio edo obren irisgarritasun baldintzak hobetzen dituztenean eta oztopo arkitektonikoak ezabatzeko egiten diren eraikuntzen, instalazioen eta obren kasuan. Hobari hau ezin da aplikatu eraiki berri diren eraikinetan egindako eraikuntza, instalazio eta obretan, ez eta eraikin baten zaharberritze osoa egitea litzatekeen eraikuntzen, instalazioen eta obren kasuan ere.
  - 4) Babes ofizialeko etxebizitzaren kasuan ondorengo hobariak aplikatuko dira:
    - 4.1 Araubide orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak (BOE): Hobaria % 50

4.2 Babes ofizialeko etxebizitza tasatuak (BOET) eta araubide bereziko udal etxebizitza tasatuak (ABUET). Hobaria: % 35.

4.3 Araubide orokorreko udal etxebizitza tasatuak (AOUET). Hobaria: % 25

Aurreko hobariak aplikatzeko egoitza-eraikin osoa babes publikoko etxebizitzetarako izango da eta eraikitako garajeak etxebizitzaren eranskinak izango dira.

Baldin eraikineko etxebizitza guztiak babes publikokoak ez badira, edo tipologia anitzekoak badira, hobaria proportzioan aplikatuko da; hau da, babes publikoko etxebizitzak eraikitako etxebizitza guztiekiko zein portzentaje osatzen duten kontuan hartuta. Garajeak eraikitzen badira, baina babes publikoko etxebizitzaren eranskin modura sailkatzen ez badira, hobaria % 10ean murriztuko da.

Babes publikoko etxebizitzak eraikitako guztien % 25era iristen ez badira, ez da hobaririk aplikatuko.

- 5) % 90eko hobaria, baldin eta eraikuntza, instalazio edo obretan eguzki energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikoa ahalbidetzen duten sistemak ezartzen badira, baina ez indarrean dagoen araudi teknikoak horiek jartzera derrigortzen badu. Hobari hori aplikatuko bada, beroa sortzeko instalazioek Administrazio eskudunak homologatutako kolektoreak eduki behar dituzte.

Hobariak Udalak ofizios aplikatuko ditu edo subjektu pasiboek eskaera eginda. Hobari bakarra aplikatuko da zergagai bakoitzeko, hain zuzen ere, subjektu pasiboarentzat onuragarriena dena.

## **6. ORDENANTZA FISKALA: UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO APROBETXAMENDU BEREZIAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA**

### ERANSKINA

a) Erabilera publikoko udal lurrak okupatzea, merkantziak, eraikuntzako materialak, edukiontziak, hesiak, euskarriak, aldamiok eta antzeko beste instalazio batzuekin

<b>Tarifak</b>	<b>€</b>
Materialak edo merkantziak, egunean m <sup>2</sup> edo frakzio bakoitzeko	4,55
Edukiontziak asteko edo frakzioko	18,96
Autogarabiak, plataforma jasotzaile motordunak, plataforma jasotzaile mugikorrek eta antzeko beste instalazioak, m <sup>2</sup> edo frakzio eta eguneko edo frakzioko	0,70
Hesiak, aldamiok, karga-jasotzaileak eta antzeko beste instalazioak, egunean m <sup>2</sup> edo frakzio bakoitzeko	0,48
Euskarriak edo zurkaintzeko beste elementuak, elementu bakoitzeko eta eguneko edo frakzioko	0,48
Eraikuntzako garabiak, txabolak eta siloak hilean m <sup>2</sup> edo frakzio bakoitzeko eta eguneko edo frakzioko	0,48
Obra eta deskarga etab. egiteko gordetako aparkalekuak, m <sup>2</sup> edo frakzioa/orduko	0,19
Obra eta deskarga etab. egiteko gordetako aparkalekuak, m <sup>2</sup> edo frakzioa/eguneko	1,57
Kaleak, espaloiak edo antzekoak ixtea:	
- Partziala	13,04 €/hora
- Osoa	19,62 €/hora

#### Aplikatu beharreko arauak:

1. Tasa hau autolikidazio bidez eskatu ahal izango du Udalak
2. Ordainketa egitetik salbetsuta egongo dira honako hauek: Udal erakunde autonomoak, herriko merkataritza-sozietateak eta mankomunitateak, baldin Udalak horietan parte hartzen badu.
3. Lurzoru publikoaren okupazioa bukatutakoan edo lurzoru publikoan baimendutako instalazio edo obrak bukatutakoan, dena hasieran zegoen bezala utziko dela bermatzeko, baimena eman aurreko agiri moduan, fidantza jartzeko eskatuko da, eta kasu bakoitzean egindako kaltea ordaintzeko erabiliko da. Hauek dira eskatuko diren fidantzak:

— Orokorrean: 500 €

- Partikularrek eta komunitateek zangak irekitzea: 500 €
- Energia elektrikoa banatzen duten enpresek zangak irekitzea: 6.000 € (urteko)
- Gas naturala banatzen duten enpresek zangak irekitzea: urtean zehar aurreikusita dauden obra berrien balioaren % 3.
- Egitura lagungarrien instalazioak: - 5 egun arte: 500,00 €  
- 5 egunetik gora: 1.200 €
- Telekomunikazioetako enpresek zangak irekitzea: 6.000 € (urteko)

Salbuespen kasuetan, alkateak eskubidea izango du, dekretu bidez, 300 euroko fidantza aldatzeko eta gehienez 100.000 eurora igotzeko, egin behar den okupazioaren tamainaren arabera. Aurrez txostena egingo du Herrilan, Azpiegitura eta Zerbitzuetako Departamentuak.

Era berean, Udalak ahalmena izango du fidantza hori erabiltzeko, obrek eragindako udal espazioa ez bada obrak egin aurretik zegoen bezala gelditzen.

4. Jarduera kultural, sozial eta kiroltakoetan tasa ordaintzetik salbuetsi ahalko da, Alkatetzaren dekretu bidez.

**b) Erabilera publikoko udal lurzorua mahai, aulki, beladore eta antzeko beste elementu batzuekin okupatzea, irabazi asmoa dagoenean.**

Tarifak	€ hileko edo frakzioko
1.Zona, 1. denboraldian, m <sup>2</sup> edo frakzio bakoitzeko	3,95
1.Zona, 2. denboraldian, m <sup>2</sup> edo frakzio bakoitzeko	1,42
2.Zona, 1. denboraldian, m <sup>2</sup> edo frakzio bakoitzeko	1,97
2.Zona, 2. denboraldian, m <sup>2</sup> edo frakzio bakoitzeko	0,72
Erabilera publikoko udal lurzoruaren egitura finkoekin okupatzeagatik ordaindu beharreko tarifak	
1 zona, 1 eta 2 denboraldian, m <sup>2</sup> edo frakzioko	3,95
2 zona, 1 eta 2 denboraldian, m <sup>2</sup> edo frakzioko	1,97

Aplikatu beharreko arauak:

- 1. denboraldia: Apiriletik urrira.
- 2. denboraldia: Urtarriletik martxora eta azarotik abendura.
- 1.Zona: Nafarroa kaletik iparraldera dagoen hiri-gunea eta Seitximeneta-Gaztainpe kaleetatik mendebaldera dagoen Alde Zaharreko zatia
- 2.Zona: Udalerriaren gainerako zatia.

Tasa hau aldizkakoa da. Zergaldia bat dator denboraldiarekin, eta zergaldi bakoitzeko lehen egunean sortzen da, zerbitzua hasi edo bukatzen den kasuetan izan ezik. Kasu horietan zergaldia zirkunstantzia horri egokituko zaio eta kuota banaketa proportzionala egingo da.

**c) Udal erabilera publikoko lurretan postuak, barrakak, saltokiak, ikuskizun-guneak, feriak edo jolas lekuak jartzea.**

Tarifak	€
Hileko feria, egunean metro lineal bakoitzeko	3,85
Salmenta-postuak San Pelaion, jaiegunetan, postuko eta eguneko	37,71
Feriako atrakzioak, m <sup>2</sup> ko eta hileko, edo dagokion frakzioa	23,76
Txurro-denda, m <sup>2</sup> -ko eta hileko, edo dagokion frakzioa	56,61
Kantinak, m <sup>2</sup> -ko eta hileko, edo dagokion frakzioa	113,44
150 m <sup>2</sup> -tik gorako zirkuak eta ikuskizunak, eguneko eta m <sup>2</sup> -ko, edo dagokion frakzioa	0,12
150 m <sup>2</sup> arteko ikuskizunak, eguneko eta m <sup>2</sup> -ko, edo dagokion frakzioa	0,17
Izozki, gozoki, gaztaina eta abarren postuak, m <sup>2</sup> -ko eta hileko, edo dagokion frakzioa	52,22
Produktuen erakusketa, salmenta edo erakustaldiak, eguneko eta m <sup>2</sup> -ko, edo dagokion frakzioa	7,08
10 m <sup>2</sup> -tik gorako okupazioko ekitaldi publikoak, baita politikoak ere, eguneko eta m <sup>2</sup> -ko, edo dagokion frakzioko	3,58
Eskolak eta kirol materialaren alokairua, m <sup>2</sup> -ko eta hileko, edo dagokion frakzioa	9,51
Loteria kioskoak	108,64

Artisautza Azoka: Zarauzko artisauak	58,03
Artisautza Azoka: kanpoko artisauak	233,69
Aurreko epigrafeetan zehaztu gabeak, m <sup>2</sup> -ko eta eguneko, edo dagokion frakzioa	11,38

Aplikatu beharreko arauak:

- a) Ondorengo tarifetan:
- Produktuen erakusketa, salmenta edo erakustaldiak, eguneko eta m<sup>2</sup>-ko, edo dagokion frakzioa.
  - 10 m<sup>2</sup>-tik gorako okupazioko ekitaldi publikoak, baita politikoak ere, eguneko eta m<sup>2</sup>-ko, edo dagokion frakzioa. Lehen egunean ordaindu beharreko gutxienezko kuota 50 €-koa izango da; ez ordea jarrita dituzten metro karratuei aurreko taulan epigrafe hauetarako finkatutako tarifa aplikatuta lortzen den emaitza 50 € baino altuagoa bada. Kasu horretan emaitza hori ordainduko da. Hurrengo egunetan ordaindu beharreko kuota honakoa izango da: jarrita dituzten metro karratuei aurreko taulan epigrafe hauetarako finkatutako tarifa aplikatuta lortzen den emaitza.
- b) Hileko feriari dagozkion tasetan, likidazioak sei hilez behin egingo dira.
- c) Lehiaketa bidez ematen diren bide publikoko okupazioetan, tasa bertan ezarritakoa izango da.
- d) Tasa ordaintzetik salbuetsita egongo dira irabazi-asmorik gabeko elkarte eta entitateak (Eusko Jaurlaritzako edo Zarauzko Udaleko elkarten erregistroan izena emanda daudenak) eta pertsona fisikoen taldeak (38/2003 Legearen 11. artikuluan jasotakoak), irabazi-asmorik gabeko jardueretan.
- e) Irabazi-asmorik gabeko jardueretan tasa ordaintzetik salbuetsi ahalko da Alkatetzaren dekretu bidez.

**d) Udal erabilera publikoko lurak okupatzea igogailu, antena eta antzeko beste elementu batzuekin**

Tarifak	€
Igogailuak, sarbideetako arrapalak eta antzekoak, urtean m <sup>2</sup> eta frakzioko	5,76
Antenak, urtean edo zati bakoitzeko	220,06

**e) Ibilgailuak finken barruko aldera sartzera eta horiek aparkatzeko herri-bidean erresebak egitea**

**Pasabide lizentziak:**

Tarifak	€
3 ibilgailurentzako edukiera, urteko	105,10
4 eta 10 ibilgailu bitarteko edukiera, urteko	202,31
11 eta 30 ibilgailu bitarteko edukiera, urteko	303,56
30 ibilgailutik gorako edukiera, urteko	404,66

**Erabilera pribatu eta kolektiboko lur eta eraikinetako aparkalekuetara sartzeko espaloi edo kale-ertzetako tarteak:**

Tarifak	€
3 ibilgailurentzako edukiera, urteko	105,10
4 eta 10 ibilgailu bitarteko edukiera, urteko	202,31
11 eta 30 ibilgailu bitarteko edukiera, urteko	303,56
30 ibilgailutik gorako edukiera, urteko	404,66

**Lekua erresebatzea:**

Tarifak	€
Lekua erresebatzea, urtean m <sup>2</sup> -ko edo frakzio bakoitza merkataritzarako erabilerarako	82,76
Lekua erresebatzea, urtean m <sup>2</sup> -ko edo frakzio bakoitza merkataritzarako erabilerarako, baina garraiatzeko zerbitzu publikoa eskaintzen dutenean	17,39

**f) Udal bide publikoen lurzoru, lurpe edo hegalkinaren erabilpen pribatiboa hornidura zerbitzuen enpresa ustiatzaileen alde.**

Zerga-egitatea:

Tasa hauen zerga-egitatea da udal bide publikoetako lurraren, lurpearen edo hegalkinaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia egitea, udalerrri honetan interes orokorrekoak diren hornidurak edo auzolagunen zati handi bati eragiten diotenak egiteko.

Subjektu pasiboa:

Tasa hauen subjektu pasiboak dira interes orokorrekoak diren hornidura-zerbitzuen enpresa ustiatzaileak, edo baita auzolagunen zati handi bati eragiten diotenak ere, enpresa banatzaileak nahiz merkaturatzaileak izan, bai sare horien titularrak badira, bai, horien titular izan gabe ere, sareak erabiltzeko, lortzeko edo horietara konektatzeko eskubideak badituzte.

Zerga-oinarria:

Enpresa bakoitzak udal mugapean lortu duen urteko fakturaziotik eskuraturako diru-sarrera gordinek osatuko dute zerga-oinarria, 11/1989 Foru Arauak 24 a c) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Karga tasa:

%1,5

Kuota:

Zerga-oinarriari karga tasa aplikatuz aterako da kuota.

Tasa kuantifikatzeko erregimen berezi horretan ez dira telefonia mugikorreko zerbitzuak sartuko.

Aplikatu beharreko arauak:

- Ekitaldi bakoitzaren lehen lau hilabetetan enpresek udal barruan egindako hornidurengatik fakturazio aitortpena egingo dute, auditore enpresaren ziurtagiria erabiliz.

- Klausula hauek alda ditzakete Udalak eta enpresek, tasa hau kudeatzeko hitzarmena sinatzen badute.

- Tasa hau autolikidazio araubidean eskatu ahalko da.

**g) Udal erabilera publikoko lurak okupatzea elementu iraunkor ezberdinekin:**

Urteko tarifak m <sup>2</sup> -ko, edo dagokion frakzioa	€
Edonolako mastak	71,73
Kokapen pribatuko informazio-seinaleak edo antzekoak	66,22
Aurreko epigrafeetan zehaztu gabekoak	66,22

**h) Udal jabetzako edo administraziopeko landa-bideen aprobetxamendu berezia**

Aprobetxamendu motaren arabera:

- o Bideen erabilera egurrak garraiatzeko:  
0,87 euro x egurra (m<sup>3</sup> edo estereo bakoitzeko) x zeharkatutako bide publikoko km bakoitzeko.
- o Bideen erabilera beste material batzuk garraiatzeko (lurra, harria, agregatuak, hiri-hondakin solidoak...):  
1,27 euro x beste materialak (m<sup>3</sup> bakoitzeko) x zeharkatutako bide publikoko km bakoitzeko.

**i) Udal erabilera publikoko lurak okupatzea merkataritzako establezimenduekin zerikusia duten materialekin:**

Tarifak	€/ urteko, edo frakzio bakoitzeko
Establezimenduko salgaiak, m2 edo frakzio bakoitzeko	47,32
Gainerako elementuak: publizitate-kartelak, elementu apaingarriak, hala nola, jardinerak, loreontziak..., m2 edo frakzio bakoitzeko	30,33
Kutxazain automatikoak, urtekoa	349,61
Salmenta makinak (bideoak, tabakoa, edariak, etab.), urtekoa	108,64

**7. ORDENANTZA FISKALA:  
ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK  
ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA**

**ERANSKINA**

a) Hiri-hondakin solidoen bilketa, horien tratamendua eta ezabatzea 12. ordenantza fiskalean jasotako kasuak izan ezik.

Urteko tarifak	(Euro)
Etxebizitza bakoitzeko	128,06
Hotel, pub, supermerkatu, jatetxe edo jangela duen ikastetxe bakoitzeko	1.110,93
Jangelarik gabeko hotel, pentsio, etab.	539,40
Taberna bakoitzeko	827,76
Janari-denda, elkarte eta zinema bakoitzeko	555,44
Oro har denda eta zerbitzu bakoitzeko	169,34
400 m <sup>2</sup> -tik gorako supermerkatu bakoitzeko	3.117,32
Merkatuko salmenta-postu finko bakoitzeko	223,81
Merkatuko bankuetako salmenta-postu ireki bakoitzeko	32,80
Urte osoan irekitako camping bakoitzeko	2.336,97
Udaldian irekitako camping bakoitzeko	1.558,00
Garaje, banketxe eta tailer bakoitzeko:	
– 3 langile bitarte	169,34
– 4 eta 10 langile bitarte	662,94
– 11 eta 30 langile bitarte	1.110,22
– 31 eta 60 langile bitarte	2.236,70
– 60 langiletik gora	3.117,32
Bide publikotik bertan behera utzitako ibilgailuak kentzea	2.639,06

Aplikatu beharreko arauak:

- Tasa hau aldizkakoa da, zergaldia bat dator lauhileko naturalarekin, eta zergaldi bakoitzeko lehen egunean sortzen da, zerbitzua hasi edo bukatzen den kasuetan izan ezik. Kasu horietan zergaldia zirkunstantzia horri egokituko zaio eta kuotan banaketa proportzionala egingo da.
- Jarduerarik ez duten lokalei, “Orohar denda eta zerbitzu bakoitzeko” tarifa aplikatuko zaie.

Hobaria:

- %15eko hobaria konpostaje programan sartu eta Udalak ezarritako baldintzak betetzen dituztenak.
- Hobari hau eskatu egin behar da. Beraz, hobaria lortzeko lehenik administratuak eskaera egin behar du.

b) Saneamendu eta estolderia zerbitzua

Urteko tarifak	€
7/13 mm. kalibrezko kontagailu bakoitzeko	93,67
15 mm. kalibrezko kontagailu bakoitzeko	107,78
20 mm. kalibrezko kontagailu bakoitzeko	143,67
25 mm. kalibrezko kontagailu bakoitzeko	345,32
30 mm. kalibrezko kontagailu bakoitzeko	497,43
40 mm. kalibrezko kontagailu bakoitzeko	883,84
50 mm. kalibrezko kontagailu bakoitzeko	1.384,30
65 mm. kalibrezko kontagailu bakoitzeko	2.333,25
Nekazal kontsumorako kontagailu bakoitzeko	93,67

**Hartune eskubideak**

Tarifak	€
Etxebizitza, lokal edo kontagailua behar duen elementu bakoitzeko	8,09
Etxe bakoitzeko hartunea	80,98

Babespeko etxebizitza bakoitzeko	0,82
----------------------------------	------

**c) Azpiegitura hidraulikoak**

Urteko tarifak	€
Kontagailu bakoitzeko	42,82
Nekazal kontsumorako kontagailu bakoitzeko	42,82

Aplikatu beharreko arauak:

- Tasa hau aldizkakoa da. Zergaldia bat dator lauhileko naturalarekin, eta zergaldi bakoitzeko lehen egunean sortzen da, zerbitzua hasi edo bukatzen den kasuetan izan ezik. Kasu horietan zergaldia zirkunstantzia horri egokituko zaio eta kuotan banaketa proportzionala egingo da.
- Azpiegitura hidraulikoen tasa ordaintzetik salbuetsita geratuko dira suteen aurkako elementuen ura kontrolatzeko diren kontagailuen titularrak (hidranteak, mahukak eta antzekoak).

**d) Edateko ur hornidura**

Tarifak	€
Etxeko kontsumoa, m3 bakoitzeko	0,80
Nekazal kontsumoa, m3 bakoitzeko	0,65
Suteen aurkako kontsumoa, m3 bakoitzeko	0,65
Gainerako erabilera guztiak, m3 bakoitzeko	1,17
Tratatu gabeko ura	0,64
NLU 1 edo gehiago duten baserritarrak	0,40

Aplikatu beharreko arauak:

- Tasa hau aldizkakoa da. Zergaldia bat dator lauhileko naturalarekin, eta zergaldi bakoitzeko lehen egunean sortzen da, zerbitzua hasi edo bukatzen den kasuetan izan ezik. Kasu horietan zergaldia zirkunstantzia horri egokituko zaio eta kuotan banaketa proportzionala egingo da.

**Hartune eskubideak**

Tarifak	€
Ur-sarera, kontagailua behar duen elementu bakoitzeko	100,75
Babes ofizialeko etxebizitza bakoitzeko	10,11

**Hartunea egiteko eskubideak:**

Tarifak	€
- 3/4 hazbeteko hodia	302,35
- Hazbete bateko hodia	402,89
- 1 ¼ hazbeteko hodia	483,52
- 1 ½ hazbeteko hodia	543,88
- 2 hazbeteko hodia	644,73
- 2 ½ hazbeteko hodia	765,50
- 3 hazbeteko hodia	906,49
- Behin behineko hartuneak (obrak, etab)	22,80

Aplikatu beharreko arauak:

- Kontagailu berrien altak ematen direnean sortuko dira hartune eskubideak.

**e) Jarduera lizentziak ematea eta jarduera eta instalazioen funtzionamenduaren egiaztapen eta ikuskapenak egitea**

**1. ALDEZ AURRETIK BAIMENDU BEHARREKO JARDUERAK**

**A. Jarduera lizentziak ematea**

Tarifak	€
Produkzio-industria jarduera	
- 300 m2-tik behera	682,44

- 301 - 1.000 m <sup>2</sup> bitarte	1.516,54
- 1.001-2.500 m <sup>2</sup> bitarte	2.426,47
- 2.501 m <sup>2</sup> -tik gora	3.235,29
Ostalaritza eta jolas jarduerak	
- 100 m <sup>2</sup> -tik behera	303,31
- 101 - 250 m <sup>2</sup> bitarte	606,62
- 251 - 500 m <sup>2</sup> bitarte	1.011,03
- 501 m <sup>2</sup> -tik gora	2.527,57
Nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak	404,41
Bestelako jarduerak	
- 100 m <sup>2</sup> -tik behera	202,21
- 101 - 250 m <sup>2</sup> bitarte	404,41
- 251 - 500 m <sup>2</sup> bitarte	606,62
- 501 m <sup>2</sup> -tik gora	1.617,64
Instalazio osagarriak	202,21

#### B. Jarduera eta instalazioen funtzionamenduaren egiaztapen eta ikuskapenak egitea

Tarifak	€
Produkzio-industria jarduera	
- 300 m <sup>2</sup> -tik behera	682,44
- 301 - 1.000 m <sup>2</sup> bitarte	1.516,54
- 1.001-2.500 m <sup>2</sup> bitarte	2.426,47
-2.501 m <sup>2</sup> -tik gora	3.235,29
Ostalaritza eta jolas jarduerak	
- 100 m <sup>2</sup> -tik behera	303,31
- 101 - 250 m <sup>2</sup> bitarte	606,62
- 251 - 500 m <sup>2</sup> bitarte	1.011,03
- 501 m <sup>2</sup> -tik gora	2.527,57
Nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak	404,41
Bestelako jarduerak	
- 100 m <sup>2</sup> -tik behera	202,21
- 101 - 250 m <sup>2</sup> bitarte	404,41
- 251 - 500 m <sup>2</sup> bitarte	606,62
- 501 m <sup>2</sup> -tik gora	1.617,64
Instalazio osagarriak	202,21

#### 2. ALDEZ AURRETIK KOMUNIKATU BEHARREKO JARDUERAK

##### Jarduera eta instalazioen funtzionamenduaren egiaztapen eta ikuskapenak egitea

Tarifak	€
Produkzio-industria jarduera	960,48
Nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak	505,51
Bestelako jarduerak	
- 100 m <sup>2</sup> -tik behera	252,76
- 101 - 250 m <sup>2</sup> bitarte	505,51
- 251 - 500 m <sup>2</sup> bitarte	758,27
- 501 m <sup>2</sup> -tik gora	1.567,09
Instalazio osagarriak	252,76

##### Aplikatu beharreko arauak:

- Denboraldiko jarduerak dagokien tarifaren % 25 ordainduko dute.
- Establezimendu handitzeak establezimendua handitua izan den m<sup>2</sup>-en arabera ordainduko dira. Alegia, handitu diren m<sup>2</sup>-en arabera tarifa bat edo beste aplikatuko zaio.
- Aldez aurreko baimena behar duten jarduerak legeztatzeko espedienteei tarifa biak aplikatuko zaizkie: 1A tarifa jarduera lizentzia emateagatik eta 1B tarifa jardueraren funtzionamenduaren egiaztapen eta ikuskapena egiteagatik.



- Beste jarduera nagusi bati lotuta dauden instalazio hauek hartzen dira instalazio osagarritzat: galdara-gelak, aire girotuaren instalazioak, hotz-ganberen instalazioak, erregai likidoak gordetzeko biltegiak, transformazio-zentroak, erradiodiagnostiko medikoaren instalazioak etab. Instalazioaren baimena edo egiaztapena jarduera nagusiarekin batera izapidetzen ez denean aplikatuko da tarifa hau.

#### f) Udal hilerriko zerbitzuak

##### Zerbitzu bakanak

Tarifak	€
Nitxo edo panteoian lurperatzea	89,17
Lurrean hobiratzeagatik	327,88
Panteoietan barrualdeko garbiketa eta gorpuzkinak berriro kokatzea	213,89
Gorpuzkinak hobitik ateratzea eta lekualdatzea	107,01
Banaka lurperatzeko nitxo emateagatik	570,07
Hezurtegiaren kontzesioa, ixtea eta gorpuzkinak lekualdatzea barne	608,59
Kolonbario baten kontzesioa, ixtea barne	541,71
Gorpuzkinak erraustea	286,65
Beste hilerrietatik datozen gorpuzkinak erraustea	437,22
Emakidaren titulartasuna eguneratzea	120,00

##### Aplikatu beharreko arauak:

- Autolikidazio araubidean exijituko da tasa.
- Kolonbarioaren kontzesioan ez da gorpuzkinen erraustea sartzen.

##### Hilerria mantentzeko zerbitzua

Tarifak	€
Panteoi-kontzesiodun bakoitzak, urteko	68,95
Nitxo edo lurreko hilobiren kontzesiodun bakoitzak, urteko	41,35
Hezurtegi edo kolonbarioren kontzesiodun bakoitzak, urteko	13,85

##### Aplikatu beharreko arauak:

- Tasa ez da proportzionalki banatuko.
- Kontzesioaren hurrengo urtean hasiko da tasa ordaintzen.
- Kontzesioa bukatzen den urtean ere tasa sortuko da.
- Hilobi-kontzesioak dirauen bitartean hilerria mantentzeko zerbitzuaren tasa ordaindu behar da (urte horiei dagokiena). Interesdunak ordainketa hori kontzesioa egiten den unean bertan edo hark dirauen bitartean egin ahal izango du.
- Tasa hau aldizkakoa da, zergaldia bat dator urte naturalarekin.

##### Salbuespenak

Udal Hilerriko zerbitzuek, bai zerbitzu bakanez, bai hilerriaren mantentze-lanetako zerbitzuek:

- Pobrezian edo antzeko egoera batean hildakoen errausketa, hobiratzea, hobitik ateratzea eta hilerriko mantentze-lanak, harik eta gorpuzkinak hezurtegi orokorrean sartzeko indarrean dagoen legedian jarritako epea amaitu arte.
- Agintaritza judizialak agindutako zerbitzuak.
- Aparteko arrazoiengatik Udalak berak ordaindu behar dituen zerbitzuak. Besteak beste aparteko arrazoia izango da, hildako pertsonak familiako edo hurbileko senide ezagunik ez izatea. Kasu horretan Udalak ordainduko ditu Udal Hilerriko zerbitzuak, harik eta gorpuzkinak hezurtegi orokorrean sartzeko indarrean dagoen legedian jarritako epea amaitu arte.

#### g) Gizarte zerbitzuak

##### ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA

Etxez etxeko laguntza zerbitzua honako arauen arabera aplikatuko da: Etxeko Laguntza Zerbitzuaren Udal Araudia (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 104 zk., 2006-06-02) eta Arautegi horren ondorengo aldaketa (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 80 zk., 2011-04-29).

Tarifak	€/orduko
Lanegunak	16,50
Jaiegunak	19,80

- Tasa hau aldizkakoa da, zergaldia bat dator hilabete naturalarekin.

#### EGUNEKO ZENTROA

Foru Aldundiak finkatutako baremoen arabera aplikatuko dira tasak.

#### ZAINTZA ETA AISIALDI ZERBITZUA

Tarifak	€/hileko
Hileko kuota	11,26 €

- Tasa hau aldizkakoa da, zergaldia bat dator hilabete naturalarekin.

#### GIZARTE LARRIALDIKO APARTAMENTUAK

Gizarte larrialdiko apartamentuen tarifa *Gizarte larrialdiko apartamentuen arautegiaren* arabera aplikatuko da (Udalbatzarrek 2010eko ekainaren 30ean egindako bilkuran onartu zen arautegi hori). Tarifa hau ezarri da:

Tarifa	450,00 €/ hileko eta apartamentuko
--------	------------------------------------

#### TRATU TXARREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEN HARRERA-APARTAMENTUA

Tratu txarren biktima diren emakumeen harrera-apartamentuko tarifa *Tratu txarren biktima diren emakumeen harrera-apartamentua arautzeko arautegiaren* arabera aplikatuko da (Udalbatzarrek 2010eko ekainaren 30ean egindako bilkuran onartu zen arautegi hori). Tarifa hau ezarri da:

Tarifa	0,00 €/ egun eta plazako
--------	--------------------------

#### **h) Udal merkaturia**

Tarifak	(Euro)
Bankuetako salmenta-postu irekiak, salmenta-postu eta hilabeteko	16,17
Salmenta-postu finkoak, m <sup>2</sup> edo frakzioko eta hilabeteko	16,17
Lege Zaharren enparantzako hazien salmenta-postua	35,69

Aplikatu beharreko araua:

- Tasa hau aldizkakoa izango da, eta zergaldiak hilabete naturala hartzen du.

#### **i) Ibilgailuak herri-bidetik jaso edo bertan geldiaraztea**

Ibilgailu mota	Ibilgailua erretiratzea	Ibilgailua egun edo frakzio batez gordetzea	Ibilgailua 24 orduz edo frakzio batez ibilgetzea	Ibilgailua 24 ordutik gora ibilgetzea
Bizikletak	9,10 €	2,00 €	4,55 €	1,90 €
Ziklomotorrak	15,10 €	4,00 €	14,45 €	3,75 €
Motozikletak, trizikloak, moto-gurdiak edo antzekoak	30,00 €	4,00 €	27,80 €	3,75 €
Turismoak, kamionetak eta antzekoak, 3.000 Kg-tik beherako tona gordina	86,10 €	15,10 €	55,40 €	14,05 €
Tona gordina 3.000 eta 7.500 Kg. Tona gordina bitarteko kamioak	Zerbitzuaren kostuaren arabera	44,90 €	207,65 €	41,60 €
7.500 Kg-tik gorako auto eta kamioiak	Zerbitzuaren kostuaren arabera	44,90 €	207,65 €	41,60 €
Gainontzeko ibilgailuak	59,85 €	15,10 €	69,35 €	20,85 €

Aplikatu beharreko arauak:

1. Jasotzeko lanak hasi ondoren baina bukatu baino lehen gidaria edo ibilgailuaren arduraduna azaltzen bada ibilgailuaren kargu egiteko asmotan, goian adierazitako tarifen % 50ari dagozkion prezio publikoak sortuko dira.
2. Ibilgailua geldiarazteko edo bide publikotik kentzeko lanak hasten diren momentuan sortzen da zergak ordaintzeko obligazioa, hau da, jaso beharreko ibilgailuaren ondoan garabia dagoenean, nahiz eta oraindik lanean hasi gabe egon.
3. Ibilgailuaren ezaugarriengatik Udalak hura jaso eta lekualdatzeko bitarteko egokiak ez baditu, zerbitzuaren kontratazioak sortutako gastuak ordainduko dira.

**j) Kultur zerbitzu eta instalazioen erabilera**

**k) Hezkuntza Departamentuaren zerbitzuak.**

Tarifak	€
Ludoteka	85,60
Udaleku irekia	85,60

Aplikatu beharreko araua:

Ludotekako kuota ordaintzeko ondorengo moduak ezartzen dira:

- Tarifaren % 100 urrian ordaintzea.
- Tarifaren % 50 urrian ordaintzea eta beste % 50 urtarrilean.
- Urtarrilean formalizatzen diren matrikuletan, matrikula egiteko unean ordainduko dute tarifa osoa, hilabete bakoitzari proportzionalki dagokiona batuta (53,00 euro).

**l) Zerbitzu higienikoak**

Tarifak	€
Itsasertzeko pasealekuko dutxak	1,55
Itsasertzeko pasealekuko komunak	0,55

**m) Agiriak izapidetu eta egitea**

Hirigintza lizentziak:	(Euro)
Obrak jakinaraztea	20,93
Partzelak eta eraikinak banantzeko lizentzia	78,05
Obra lizentzia eta exekuzio aginduak:	
Aurrekontua 20.000 € baino txikiagoa	41,81
Aurrekontua 20.000 eta 100.000,99 € bitartekoa	139,32
Aurrekontua 100.001 eta 500.000 € bitartekoa	417,65
Aurrekontua 500.000 €-tik gorakoa	835,21
Lehen erabilera, okupazio eta erabilera aldaketarako lizentziak:	
Etxebizitza bakoitzeko	27,90
50 m <sup>2</sup> baino gutxiagoko lokal komertzialak eta jarduera profesionalekoak	27,90
50 m <sup>2</sup> edo gehiagoko lokal komertzialak eta jarduera profesionalekoak	69,66
Etxebizitzarekin loturarik ez duten garaje eta trastelekuak	14,01
Familia bakarreko edo biko etxebizitzak	222,78
500 m <sup>2</sup> -tik beherako pabilioi industrialak	222,78
Nekazaritza eta abeltzaintzako eraikin bakoitzeko	222,78
500 m <sup>2</sup> edo gehiagoko pabilioi industrialak	306,34
Obra lizentziak eskatu eta ukatu egiten badira, ez da tasarik aplikatuko.	
Bide publikotik ikus daitezkeen publizitate-kartelak jartzeko lizentziak:	
12 m <sup>2</sup> -tik beherako publizitate-kartelak	41,81
12 eta 32 m <sup>2</sup> bitarteko publizitate-kartelak	90,59
32 m <sup>2</sup> -tik gorako publizitate-kartelak	139,32

Hirigintza txostenak	(Euro)
Oinarrizko txostenak	35,39
Hirigintzako plangintza eta ordenantzei buruzko txosten orokorrak	139,32
Hirigintza zedulak	83,61
Eraikuntza proiektuen bideragarritasunari buruzko txostenak	167,12
Hirigintzako plangintza/kudeaketarako proposamenen bideragarritasunari buruzko txostenak	208,83
Interesdunak eskatuta, aurri deklarazioen espedienteetan txostena egitea	2.310,80

**Beste batzuk:**

Tarifak	(Euro)
Animalia arriskutsuak edukitzeko lizentzia	202,51
Animalia arriskutsuak edukitzeko lizentzia berritzea	101,40
Udaltzaingoak egindako txostenak	30,90
Zigor-espedienteen kopiak bidaltzea	15,10
Ondasun Higiezinetan egindako kalteei buruzko udal txostenak	10,00
Udal zerbitzuetara atxiki gabeko ibilgailu astunak, hiri bideetan nahiz landa bideetan, zirkulatzeko baimenak	73,40
Udal funtzionarioen postuetan aukeratze-prozesuan izen ematea	7,75
FOTOKOPIAK:	
Kopia bakoitza edo orri inprimatua (t/b - DIN A4)	0,10
Kopia bakoitza edo orri inprimatua (koloretan - DIN A4)	0,50
Kopia bakoitza edo orri inprimatua (t/b - DIN A3)	0,15
Kopia bakoitza edo orri inprimatua (koloretan - DIN A3)	1,00
Udala liburutegia: Pen-drive (2 Gb) bakoitzeko	10,40
Udala liburutegia: Zuri beltzeko 10 fotokopiako txartel bakoitzeko	1,00
Udala liburutegia: Zuri beltzeko 20 fotokopiako txartel bakoitzeko	2,00
Udala liburutegia: Zuri beltzeko 50 fotokopiako txartel bakoitzeko	5,00
Udal liburutegia: Galdutako txartela berritzeagatik	3,50
Udal liburutegia: Galdutako liburua berriz jartzea	Liburua itzultzea

**n) Udal zerbitzu eta instalazioak erabilera kulturaletarako ez besteetarako erabiltzea**

Tarifak	(Euro)
Udaletxeko aretoa	121,32
Etxezabalako aretoa	66,22
Villa Munda (1. edo 2. gela)	66,22

**12. ORDENANTZA FISKALA:  
ZARAUZKO UDALERRIKO INDUSTRIALDE ETA ENPRESAGUNEETAN HONDAKINEN  
GAIKAKO BILKETA ZERBITZUA EMATEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN  
DUENA**

**ERANSKINA**

**a) Saltokiak, enpresak eta industriak orokorrean**

Lau hileko tarifa	Euro
01 Lokal edo establezimenduaren metro karratu bakoitzeko (gehenez 2000 m <sup>2</sup> )	0,21
02 Erabiltzaileen esku utzitako hondakin inerte edota organikoen edukiontzi bakoitzeko	31,05
03 Emandako zerbitzu-unitate bakoitzeko. 360 l-ko edukiontzia	
031 Hondakin inerteen edukiontzia	20,72
032 Hondakin organikoen edukiontzia	8,33
04 Emandako zerbitzu-unitate bakoitzeko. 1.000 L.-ko edukiontzia	
041 Hondakin inerteen edukiontzia	24,82
042 Hondakin organikoen edukiontzia	12,50
05 Tamaina handiko hondakinen metro kubiko bakoitzeko	17,66

b) Eraikin kolektiboetan dauden bulego eta enpresa txikiak

Lau hileko tarifa	Euro
11 Lokal edo establezimenduaren azalera 50 m2 arte	52,13
12 50 m2-tik 100 m2 arteko azalera	72,42
13 100 m2-tik 150 m2 arteko azalera	93,08
14 150 m2-tik 200 m2 arteko azalera	113,75
15 200 m2-tik 250 m2 arteko azalera	134,41
16 250 m2-tik gorako azalera	165,46

## 8.- UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENAK

### a) EH Bildu eta Irabazi Zarautz taldeen mozioa: Torreioia Bizirik taldearen idatzia aurkeztuz

Ondoren, EH BILDU eta IRABAZI ZARAUTZ udal taldeek aurkeztutako proposamena irakurri dute. Hona hemen testua:

#### TORREOIA BIZIRIK

Vista Alegreko Torreioia 1913. Urtearen inguruan eraiki zen, Muñiz markesa zenaren jauregi zaharreko lorategietako alderdirik garaienean. Gaur egun jabari eta erabilera publikoko ondasun kalifikazioa du, babes ertaina duelarik.

Torreioia Zarauzko herriko espazio aberats eta ederra da, garrantzia historiko handia duen eraikina, Gipuzkoan hormigoi armatuz egindako lehenetarikoa baita, eta zarautzarrek horretaz gozatzea helburu izan beharko genuke. Egun jende asko bertara hurbiltzen ez bada ere, belaunaldi batzuek oso presente izan dute beren egunerokoa, eta aisialdirako gune erreferentea izan da.

Torreioia Bizirik, herri ekimena, urte luzeetan aldarrikatu du, bai Torreoi, bai inguratzen duen lorategiaren berreskuratze eta biziberritze nahia. Balio handiko gune den hau, Zarauzko ez ezagun handi bat da, herritarren gozamen eta aisialdirako eremu aproposa.

Ildo horretan lan egiten ari gara Torreioia Bizirik taldeko kideak. 2013. urtean erakusketa bat antolatu genuen Torre Luzean, espazio hau zertara zuzendu behar zen jakiteko auzokoen iritzia bildu genuelarik. Erantzun eta iradokizunen artetik, birgaitze proiektua egiteko garaian batez ere hausnarketa hauei erantzungo zien proiektura mugatzea erabaki zen: Zergatik izan behar al du funtzio bat Torreioiak? Eskulturek ba al dute funtzioaren bat? Torreioia begiratoki hunkigarri bat da, funtzio hori gutxi al da akaso?

Torreioia eta lorategia berreskuratzeko "Denboraren Parkea" proposamena luzatu genion Zarauzko Udalarari. Torreoiaren esentzia errespetatu eta jarduera desberdinen sinergiak bilatuko lituzkeen proposamena luzatuz. Udalak begi onez ikusi ondoren, Torreioia eta lorategiaren birgaitzeko aurreproiektuaren idazkera lanak enkargatu, Herrilan batzordean aztertu eta ondoren, 2015eko maiatzean, proiektua egiteko lanak esleitu zituen.

Urtebete luze igaro ondoren, Torretoa Bizirik taldeko kideek ezer ez dakigu proiektu honi buruz eta Udalaren asmoei buruz. Horregatik Zarauzko Udaltzari honako konpromisoak hartu ditzala eskatzen diogu:

1.- Zarauzko Udalak aurreko legealdian irekitako bideari jarraipena emateko konpromisoa hartzen du.

2.- Zarauzko Udalak "Denboraren Parkea"ren proiektua amaitu eta aurreproiektuan aurkeztutako ispiritua mantenduz, proiektuarekin bat egiteko konpromezu politikoa hartzen du.

3.- 2017-18 urteen artean proiektua garatu ahal izateko, Zarauzko Udalak behar den aurrekontua onartzeko konpromezua hartzen du.

Mozioa eztabaidatu eta puntuaz puntu bozkatu ostean, bakoitzean jasotako emaitzaz, mozioaren 1. eta 2. puntuak atzera botatzea eta 3. puntua onartzea ERABAKI DU Udaltzarrak.

### **EGUNEKO GAI-ZERRENDATIK AT**

Eskari-galderen txanda hasi aurretik, EGUNEKO GAI-ZERRENDATIK KANPORA, eta bilkuran dauden zinegotziek aho batez presazkotzat hartu ondoren, gai hau aztertu dute:

#### **– PSE-EE UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: IRAILAREN 28AN ABORTU SEGURUAREN NAZIOARTEKO EGUNA DELA-ETA**

Ondoren, PSE-EE udal taldeak aurkeztutako proposamena irakurri dute. Honela dio:

#### **IRAILAREN 28AN ABORTU SEGURUAREN NAZIOARTEKO EGUNA DELA-ETA, ZARAUZKO UDALEKO TALDE SOZIALISTAK AURKEZTEN DUEN MOZIOA**

##### **ZIOEN AZALPENA**

Eskubide sexualak eta ugalketakoak –eta horien artean, haurdunaldia borondatez etetea – mundu mailan aitortutako giza eskubideak dira, Nazio Batuek Kairoko eta Beijingeko Biltzarretan (1994-1995) eta Europako Kontseiluak 2008an. Erakunde horiek estatu kideei eskatzen diete haurdunaldiaren etetea eskuragarria, lorgarria eta segurua izan dadila.

Nahiz eta Kairoko Biltzarrean 179 herrialdek sinatu adierazpen instituzionala – Espainiak, besteak beste –, oraindik ez dira bete haren funtsezko helburuak: "Herrialdeek hiru gauza bermatu behar dituzte: kontrazepzio eskuragarria, familia-plangintzari buruzko informazioa eta abortu segurua". Hala adierazten du

Populazio eta Garapenerako Nazio Batuen funtsaren 2014ko txosten batek. Eta txosten horrek berak ohartarazten du zein ondorio larri jasan ditzaketen mundu osoko 220 miloi emakumek ezinezkoa delako haientzat kontrazepzio metodo modernoak lortzea.

Eskubide sexualak eta ugalketakoak funtsezko giza eskubideak dira. Beraz, estatuek bitartekoak jarri behar dituzte emakumeei euren sexualitatearen gaineko kontrola emateko (osasun sexuala eta ugalketako barne) eta amatasunari buruz libreki eta era arduratsuan erabakitzeke. Kontrakoa egiten bada, eskubide horiek urratu egiten dira, eta emakumeen askatasunaren, duintasunaren eta osotasunaren kontrako eraso zuzena izango da.

Irailaren 28a Abortua Despenalizatzeko Ekintzaren Nazioarteko Eguna izendatu zuten 1990ean Argentinan antolatutako Latinoamerikako eta Karibeko V. Topaketa Feministan. eta 2012an munduko 53 herrialdetan egun hori ospatu zen.

Irailaren 28ko deialdiak El Kairoko Populazio eta Garapenerako Nazioarteko Biltzarreko Ekintza Programaren helburuen barruan sartzen dira 1994an, eta baita ere munduko beste plataforma batzuetan. Guztiek aitortzen dute segurtasunik gabeko abortua osasun publikoko arazo larria dela eta haurdunaldiaren borondatezko eteteak berme sanitario eta juridiko guztiekin egin behar direla.

Azken urteotan Nazio Batuen hainbat erakundek sinatu dituzte gomendio horiek. Sinadura horiek indartu egiten dute nahigabeko haurdunaldiak era seguru eta legezkoan eteteke egiten den eskaera.

Abortu kopurua, ordea, ez da gutxitu, eta haurdunaldia borondatez eteteari buruzko lege murriztaileek arriskuan jartzen dituzte emakumeen osasuna, bai eta bizitza ere. Amatasuna ez da helburu biologiko itsu bat, baizik eta giza proiektu bat. Horregatik defendatzen dugu emakumeek euren amatasuna hautatzeko izan behar duten askatasuna.

2010 urteko lege sozialista lege ona zen, gure inguruko herrialdeetakoekin homologagarria. Nahi gabeko haurdunaldi kopurua murrizteko helburua bete du, eta, ondorioz, baita abortu kopurua murriztea ere. 2014an erregistratu zen haurdunaldiaren borondatezko eteteetan azken zortzi urteetako zenbakirik baxuena (azken datu ofizialak). Izan ere, lege sozialista onartu zenetik, abortu kopurua etengabe jaitsi da. 2011n abortu-tasa 12,47koa izan zen 1.000 emakumeko; hurrengo urtean 12,12koa; 2013an 11,74ra jaitsi zen eta 2014an, berriz, 10,46ra murriztu zen.

Hala ere, Partido Popularreko gobernuak aldatu egin du 2010eko lege sozialista, eta 16 eta 17 urteko emakumeak ezkutuko eta segurtasunik gabeko abortuak jasateko arriskuan jarri ditu. Eta hori guztia, nahiz eta adin multzo guztietan jaitsi den abortu kopurua, eta gehiena emakume gazteen artean: 20 eta 24 urte artekoetan 4,81 eta 19 urte edo gutxiago dituztenen artean 3,76.

Horiek horrela, Zarauzko Udaleko Udal Talde Sozialistak MOZIO hau aurkezten du bozkatzeko eta Espainiako Gobernuari zuzendutako ondorengo AKORDIOAK eta eskakizunak onartzeko:

Udal honek honako hau ERABAKI eta ESKATZEN DIO Espainiako Gobernuari:

1. Nazio Batuen Zuzendaritza Nagusira jo dezala, bere babes adierazteko Emakumeak Abortu Segurua edukitzeko Eskubidearen aldeko Nazioarteko Kanpainari. Irailaren 28a Abortu Seguruaren aldeko Nazioarteko Egun izendatzeko akordioa eskatzen du kanpaina horrek, Nazio Batuen egun ofizial gisa.
2. 2/2000 Lege Organikoa, Sexu- eta ugalketa-osasunaren eta haurdunaldiaren borondatezko etendurarena berreskuratzea. Aldez aurretik, legea aplikatzeko epeen irizpidea errebisatzea, haurdunaldiaren etetea posible izateko edozein momentutan, munduko legerik aurreratuenetan jasotzen den bezala. Baita ere, adin gabekoen kasuan, gurasoen baimena beharrezkoa izan ez dadin.

Zarauzko Udalak mozio honen berri emango dio Espainiako Gobernuari eta Diputatuen Kongresoari, Eusko Jaurlaritzari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari.

Zarauzko Udalak onartzen du mozio honen berri zarauztarroi ematea.

Udalbatzarrak ERABAKI DU, botoen gehiengoaz, PSE-EE udal taldeak aurkeztutako mozioa onartzea.

## 9.- ESKARI-GALDERAK

Ez du inork hitz egin.

## 10.- ZINEGOTZI KARGUARI UKO EGITEA

2016ko irailaren 23ko idatziaren bidez (udaletxeko sarrera-erregistroan 10755 zk.), EAJ-PNV udal talde politikoko zinegotzi IMANOL LASA ZEBERIO jaunak uko egin dio Zarauzko Udaleko zinegotzi karguari.

Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

**Lehena.-** IMANOL LASA ZEBERIO jaunak, EUZKO ALDERDI JELTZALEA – PARTIDO NACIONALISTA VASCO (EAJ-PNV) hautagai-zerrendakoa denak, zinegotzi karguari egindako ukoaren berri formala hartzea.

**Bigarrena.-** Akordio honen ziurtagiria eta adierazitako zinegotziak egindako ukoaren kopia Hauteskunde Batzorde Nagusiari bidaltzea, hark bidezko egiaztagiria egin dezan kargua utzi duen zinegotzia ordezkatu ahal izateko.



Eta aztertzeko besterik ezean, batzarburu jaunak hala aginduta, osoko bilkurari amaiera eman diote, gaueko hamabiak hogeitun gutxitan, eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.